

Informazio

Agerkaria

210

2012ko
maiatza
mayo
2012

Boletín

Informativo



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya



Urteko Bazkaria

¿IMAGINAS QUÉ
HARÁS CON EL
60%
QUE TE AHORRAS
CUANDO COMPRAS
NUESTROS
EBOOKS?



Librería Virtual EL DERECHO

La respuesta a todas tus preguntas

Contenidos actualizados con las últimas reformas legales

Contenidos disponibles inmediatamente

Autores de prestigio como los de nuestra colección Tribunal Supremo

Abierto las 24 horas, los 365 días del año



EL DERECHO

www.elderecho.com/publicaciones

Urtebete igaro da gure Bazkuneko azken jaia egin zenetik.

Berriro ere, gure kolektiboa aberastuko duten kideak gure artean hartu ditugu, adimentsuak, indartsuak, gazteak eta ameslariak baitira. Haien ametsak justiziarekin, askatasunekin, eskubideekin eta kontzeptu horien kudeaketa-sistemekin zerikusia dute. Ametsak eta konpromisoak mundu adeitsuagoa, ez hain zaila sortzeko. Harrotasuna eragiten digun zuzenbideko estatua. Guztiok estatu horretan sinetsi genuen noiz edo noiz, eta horren alde borrokatzen jarraituko dugu, inguruabar ekonomikoek eta egoera horren kudeatzaileek jartzten dizkiguten zailtasunak gorabehera. Zuzenbideko estatuak gure oroitzapenen artean ihes egiten digu, baina gure foro juridikotik horren alde borrokan jarraituko dugu.

Gizarte estatua gero eta urrunagoa eta kimerikoagoa dela dirudi, baina gure oroipenean iraungo du beti, bete gabeko ametsen edertasuna bezala.

Abokatutzan urte asko daramatzaten kideek egunero irakasten digute justizia-amets horien bila joaten, tentuz bada ere. Haiek laguntzen digute ahotsa goratzen gainerako erakundeek kontzeptu eta sistema garrantzitsuak ezartzen ahalegintzen direnean –legez baina agian bidezkoa izan gabe–, hala nola doako justizia herritarrentzat.

“
Abokatutzan urte asko daramatzaten kideek egunero irakasten digute justizia-amets horien bila joaten, tentuz bada ere

Sistema horiek inork baino hobeto eza-gutzen ditugu, guk gizarteari gure lanbideko onena ematen diogu gizarte horren interesak defendatzeko, inolako kosturik gabe.

Pozik gaude elkargokide berriak iritsi zaizkigulako, ibilbide luzeengatik omenaldiak egin ditugulako, eta etorkizunean borroka irmoak egongo direlako. Giro horretan, gure borroka eta interes berberak dituzten elkargokideekin denbora emateko gai gara.

Topa egiteko, besarkatzeko eta irribarre egiteko unea eta lekua aurkitzen ditugu. Elkarrekin jateko, edateko eta irribarre egiteko gai gara, baita sortzeko, konbentzitzeko, adiskidetzeko ere, guk ordezkatzeko ditugun interesak defendatzeko.

Intentsitate berberarekin sufritzeko eta gozatzeko gai gara, gure lanaren erdigunea, hain zuzen ere, emozioak ulertzea, interesak defendatzea, beste pertsona batzuei gatazkak ebazten laguntzea eta haien posizioa hobetzea baita.

Zorionak beteranoei. Zorionak iritsi berriei. Zuen ahaleginarengatik. Zuen ilusioengatik. Zuen iragan eta etorkizunengatik. Baina, batez ere, zuen bizitasunarengatik eta zuen indarrarengatik, horiei esker bizitzaz eta bizitzaren magia goza dezakete eta.

Ha pasado un año desde que se celebró la última fiesta anual de nuestro Colegio.

Una vez más hemos recibido entre nosotros a aquellos compañeros que enriquecerán nuestro colectivo aportando inteligencia, fuerza, juventud y sueños. Sueños que tienen relación con la justicia, las libertades, los derechos y los sistemas de gestión de estos conceptos. Sueños y compromisos para intentar crear un mundo más amable, menos difícil. Un Estado de Derecho del que todos nos sentimos orgullosos y en que todos creímos firmemente alguna vez y por el que seguiremos luchando, a pesar de las dificultades que el devenir económico de los tiempos, y los gestores de aquellos nos impongan. En estado de bienestar que se nos escapa entre nuestros recuerdos pero por el que seguiremos luchando desde nuestro foro jurídico.

Un estado social que cada vez parece más lejano y quimérico pero que permanecerá en el recuerdo como la belleza de los deseos incumplidos y que están por alcanzar.

Son ellos, nuestros compañeros ya veteranos en el ejercicio de la abogacía los que nos enseñan cada día a perseguir, aunque sea de puntillas, esos sueños de justicia. Los que nos ayudan a alzar la voz cuando las demás instituciones pretenden imponer de forma legal pero quizá no tan justa – maneras de gestionar conceptos y sistemas tan importantes como el de la justicia gratuita para los ciudadanos.

Sistemas que nadie conoce mejor que nosotros, que somos quienes le entregamos a la sociedad lo mejor de nuestra profesión para defender sus intereses sin coste alguno.

En ese entorno de alegrías por nuevas incorporaciones, de homenajes por prolíficas carreras, y de firmes luchas futuras, somos capaces de compartir además, nuestro tiempo con aquellos compañeros que comparten también nuestras luchas e intereses.

Somos capaces de encontrar el momento y el lugar para los brindis, los abrazos y las sonrisas. Somos capaces de comer, beber y reír juntos de igual manera que de crear, convencer, conciliar, para defender los intereses de aquellos a los que representamos.

Somos profesionales que, quizá como nadie imagina, somos capaces de sufrir y disfrutar con la misma intensidad porque el núcleo de nuestro trabajo es, precisamente, entender las emociones, defender los intereses, ayudar a otras personas a resolver sus conflictos y mejorar sus posiciones. Y sólo aquellos que viven intensas experiencias, son capaces de empalmar de manera suficiente, con quienes necesitan de nuestro trabajo.

Felicidades a los veteranos. Enhorabuena a los llegados. Por vuestro empeño. Por vuestras ilusiones. Por vuestro pasado y por vuestro futuro. Pero, sobre todo, por vuestra vitalidad y vuestra fuerza que os permite disfrutar de la vida y de su magia.

“

Son ellos, nuestros compañeros ya veteranos en el ejercicio de la abogacía los que nos enseñan cada día a perseguir, aunque sea de puntillas, esos sueños de justicia

”



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatu
Bazkun
Ohoretsua**
**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

Colaboradores / Laguntzaileak
César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Fotografía / Argazkigintza
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987



Disjurex

Su Librería Jurídica

SI ES JURÍDICO, ECONÓMICO, EMPRESA, Y OPOSICIONES, **¡ LO TENEMOS !**

Su mayor librería jurídica en internet



Podrá consultar más de 35.000 obras, por títulos, materias, editoriales, autores y palabras clave.

ÚNICO TELÉFONO para todas las editoriales Jurídicas Españolas. **944 255 220** ó **902 540 992**.

LIBRERÍA PRESENCIAL. Exposición y venta de las últimas novedades y fondo de referencia de las principales Editoriales Jurídicas, Economía y de Empresa.

LIBRERÍA VIRTUAL: www.disjurex.es. Según los datos del Consejo Vasco de La Abogacía, somos la página web más visitada y mejor valorada en el sector Jurídico. **Descuento 5 % en todas las obras.**

INFORMACIÓN BIBLIOGRÁFICA:

Envío periódico de correos electrónicos con la lista de las **NOVEDADES** relacionadas con las áreas de trabajo que nos solicitan. Actualmente enviamos a 103.000 clientes este valioso instrumento de información.

BOLETÍN DE ACTUALIDAD Y CONSEJOS: Realizado por expertos del sector de Consultoría de Despachos Profesionales, enviamos semanalmente un correo electrónico de recopilación de noticias y novedades legislativas, totalmente gratuito.

ASESORAMIENTO EN OBRAS JURÍDICAS: Nosotros no despachamos libros. Desde el año 1987 estamos visitando bufetes e instituciones, por lo que nos resulta muy fácil detectar sus necesidades.

Si desea asesoramiento sobre libros jurídicos, cuente con nosotros, estamos muy cerca de Usted

www.disjurex.es

Descuentos especiales para Estudiantes, Profesores, Práctica Jurídica y Asociación de Jóvenes Abogados

Librería Exposición y Venta

**A 100m. del Palacio de Justicia
Frente al Ilustre Colegio de Abogados de Bizkaia**



Distribuidor exclusivo de:
Academia Vasca de Derecho y AD Concordiam

SÍGUENOS EN:



Disjurex 

Alameda Mazarredo, 15 Bajo
48001 - Bilbao - Vizcaya
Teléfono: 902 540 992 – 944 255 220
Fax: 902 540 993 – 944 245 811
E-mail: clientes@disjurex.es
Librería Virtual: www.disjurex.es

Horario comercial en librería de Lunes a Viernes de 9:30 AM a 20:00 PM, ininterrumpidamente.

SERVICIO DE ATENCIÓN PERSONALIZADA Y CONOCIMIENTO DE LAS OBRAS QUE COMERCIALIZAMOS

2012ko maiatza
mayo 2012

06

BERRIAK

BJABO-ko Urteko Jaia

Kopa jaso genuen



06

12

INFORMAZIOA

Kostuetarako
kondenaren fiskalitatea



10

14

JARDUNALDIAK

Kutsadura Elektromagnetikoa



14

18

BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

20

LEGEGINTZA BERRITASUNAK



22
JAVIER GUTIÉRREZ
Un buen chico

22

KULTUR ERANSKINA



24



BJABO-KO URTEKO JAIA



Joan den ekainaren 1ean, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren urteroko bazkaria egin zen. Beste urte batzuetan bezala, eguna hasteko, elkargoan sartuko ziren hautagaiek Ramon Lasagabasterrek emandako hitzaldi deontologikoa entzun zuten, zalantzarik gabe lanbide-bizitza trinko eta oparoa izango den hori hasi aurretik. Jarraian, BJABOko aretoan modu formalean bilduta, ekitaldia hasi zen, hurrengo hauen zuzendaritzapean: Juan Luis Ibarra Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea, Juan Calparsoro EAEko fiskalburua, Margarita Uría Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea, Victoria Ortega Espainiako Abokatu-tzaren Kontseilu Nagusiko idazkaria, Iñigo Lamarka Arartekoa eta Nazario de Oleaga dekanoa. Hasteko, Javier Bolado idazkarian Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Gobernu Batzordeko akta irakurri zuen Batzordeko gainerako kideak, gerentea, gonbidatutako agintari eta lankideak eta gainerako bertaratuak aurrean zirela.

Modu horretan, elkargokide berrien zin-egite ekitaldia hasi zen. Jarraian, 2011n Bazkunean 25 urte egin zituzten lankideei omenaldia egin zitzaizen.

25 URTE JARDUNEAN DARAMATEN ELKARGOKIDEAK

IZENA
ALDECOA YOHN, JUAN LUIS
ANCHIA MUNIOZGUREN, JUAN CARLOS
ANDIA ORTIZ, ALEJANDRO
ARANA BASABE, Ma. ISABEL
ARANA PEREZ-MALUMBRES, JOSE ANT
AREA DE ARANA, ALVARO
ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL, J
ARRIOLA SAENZ, ANTONIO
AYO FERNANDEZ, SALOME
BARRUTIA ECENARRO, MARCOS
BARTUREN BUSTO, Ma. LETICIA
BERGER URANGA, PEDRO
BIDEGORRI DILIZ, MARGARITA
BLAZQUEZ PEREZ, ESTHER
CALLE DIAZ, INMACULADA
CASTEJON CORTES, JOSE MIGUEL
CUEVAS LOPEZ, ANA ISABEL
DOLADO GALINDEZ, MARTA
ECHEVARRIA PORTELL, FELIX
ELGUEZABAL ITURRI, JUAN
ESCUBI JUARISTI, LUIS MARIA
ESTURO ELGUEZABAL, Ma. NIEVES
ETXEBERRIA OLAÑETA, IGNACIO
FERNANDEZ CORDERO, ELISEO

FERNANDEZ MARTINEZ, IRENE
FERNANDEZ ORTEGA, PEDRO MARIA
FERREIRO APARICIO, ALBERTO
GALDOS IBAÑEZ DE OPACUA, IGN.
GARAIZABAL LEGUINA, SABIN JOSU
GARCIA GONZALEZ, ISABEL
GARCIA LOPEZ, ALBERTO
GARCIA VILLANUEVA, TOMAS
GAZTELU OLAZABALAGA, Ma. TERESA
GIMENO LECUE, JAVIER
GINER HERNANDEZ, FAUSTINO
GOITIA VILLELBEITIA, ANGEL
GOITISOLO GARCIA, MIGUEL OSCAR
GOMEZA ELEIZALDE, MARIA ICIAR
GOMEZA VILLA, JUAN IGNACIO
GOMEZ-ZUBELDIA SANCHEZ, FCO.
GONZALEZ ARRATE, NIEVES BEGOÑA
GONZALEZ BILBAO, EMILIO
GORRITXATEGI GOROSABEL, JUAN J
GUINEA ZAMORA, ALICIA
GUIO CILUAGA, MARIA DOLORES
HILARIO RODRIGUEZ, RAMON
HORMAECHEA SANTIDRIAN, Ma. ESTI
IBARRA FONTAN, JOSE MARIA
IBARRECHE MAIDAGAN, JOSE RAMON
IBARRONDO GARAY, UNAI
ILLARRAMENDI MAÑAS, FCO. JAVIER
JARAMILLO VICARIO, MANUEL
JAUREGUIZAR ITURRIOZ, TERESA
LADRON DE GUEVARA, COVADONGA
LAGUARDIA ZALBIDE, Ma. ARANZAZU
LAGUENS CAPABLO, LUIS MANUEL
LAZARO LAUCIRICA, IVAN
LECANDA ARALUCE, JULIO
LEJARRETA CORTAJARENA, PILAR
LLEDO VICENTE, JAVIER
LOSANTOS OMAR, JOSE JAVIER
LUCEA MARTINEZ, RAFAEL
MARIN PICO, Ma. LOURDES
MARRA PASCUAL, CARLOS MARIO
MARTINEZ BALBAS, RAQUEL
MARTINEZ DE AZAGRA, DEMETRIO
MENDIZABAL PALACIO, JOSE IGN.
MERINO ORTIZ DE ZARATE, YOLAND

IRAGARKI TAULA

Bulego indibiduala ALOKATZEN DA bulego baten barruan. Hornituta. Barroeta Aldamar kalea. Prezioa: 232 euro. Tlfnoa. 676461482.

LANKIDEAK BILATZEN DIRA, abokatuak edo prokuradoreak, abokatuen bulego sendotua elkarbanatzeko. Instalazio onak. Bilboren erdialdean, epaitegietatik eta Abokatuen Bazkunetik hurbil. Gastuak denon artean ordaintzeko. Lehentasuna dute arlo fiskaleko, lan arloko eta

administrazio arloko espezialitateek. TLFNOA.: 946612070.

BULEGOA ALOKATZEN DA BILBOREN ERDIALDEAN. MERKEA. Mazarredo zumarkalean, Abokatuen Bazkunaren aurrean. Abokatuak, prokuradoreak, ekonomistak. Interesa izanez gero, deitu 944239409-600414985 zenbakietara.

Bulegoak ALOKATZEN DIRA Barakaldon, Foruen kaleko 20an, 1. ezkerrean. Tlfnoa. 944371232

MEZO MEZO, AITOR GAIZKA
MONTERO ALVAREZ, JUAN MANUEL
MONTES EGAÑA, JOSE IGNACIO
MORATINOS GARRIDO, FERNANDO
MUELAS GULLON, ANTONIO
MUÑOZ PEÑA AURTENECHÉ, JOSE L.
NACHIONDO BARBARIAS, JOSE MAN.
OCERIN AGUIRRE, FCO. JAVIER
OLMO ILARZA, FCO. JAVIER DEL
ORTIZ CABEZAS, AMAYA
OTAOLA LOPEZ, MARIA BEGOÑA
PASTOR RUIZ, JOSE
PEÑA PAZOS, JOSE MANUEL
PEREZ DUARTE, JAVIER
PEREZ TOLOSA, JOSE FELIX
PEREZ-COSIO MARISCAL, GUILLERMO
PUEYO PUENTE, MIGUEL
RUIZ DE VERGARA MARTINEZ, IGN.
RUIZ ECHEANDIA, JON
RUIZ GARCIA, JOSE MARIA
RUIZ GARCIA, JOSE MIGUEL
SAN SEGUNDO MANUEL, Ma.TERESA
SANTAYANA GUTIERREZ, MARTA
SANTOS DOMINGUEZ, Ma. ISABEL
SANZ OLMOS, ABUNDIO
SEGUIN ZAMALLOA, JOSUNE
SERRANO HERNIAIZ, JAVIER
TAPIA CARAZO, JORGE
TEJON RANERO, JAVIER
URIARTE PEREZ, FIDEL IGNACIO
URKIDI AGUIRRE, JESUS MARIA
URRUTIA BADIOLA, JESUS MARIA
URRUTICOECHEA URIARTE, PILAR
VICENTE UNZAGA, MANUEL DE
VICINAY DE LA TAJADA, LUIS
VILLAMARIN GARCIA, ELINA
ZABALA MARDARAS, Ma. DEL MAR
ZAMANILLO ARNAIZ, GONZALO
ZAPIRAIN BILBAO, ANA ISABEL
ZARATE ORTIZ DE URBINA, CARLOS
ZARZOSA URANGA, LUIS ALBERTO
ZORRILLA SUAREZ, ANA

Diplomak banatu ondoren, Nazario de Oleaga dekanok hartu zuen hitza. Lehenengo eta behin, ekitaldian elkartu zen "familia juridikoa" agurtu zuen, eta aldi berean, bertaratu guztiei ekitaldira joateagatik eskerrak eman zizkien. Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko ordezkari ez egotea bereziki azpimarratu zuen. Gertaera hori ez zen sorpresa izan inorentzat, erakunde horren eta gure Bazkunaren artean ez baitago harremanik. Gure dekanok inguruabar hori irmo salatu zuen, baina tristura eragi-





ten diola esan zuen, krisialdi honetan guztiok betebeharra baitaukagu Gobernuari laguntzeko proiektuak aurrera ateratzen, eta hori ezin da egin - "telefonoa ere hartzen ez badigute".

Doako Justiziaren Dekretu polemikoa eta Justizia sailburuordearen jarrera itxi eta elkarrizketaren aurkakoa aipatu zituen. Era berean, duela bi urte hildako Txema Fínez errespetuz gogoratu zuen, adimen handiz eta elkarrizketaren bidez gure lanbiderako eta gizarterako oro har oso garrantzitsua den kudeaketa-sistema konpondu eta hobetzeko benetako interesa agertu baitzuen.

Dekanoaren esanetan, gaur egun Eusko Jaur-laritzak mesfidantzan oinarritutako jarrera inposatzen du. Iruzurra ezkatzen duten berbal-diak iristen zaizkigu, eta ez zaizkigu gustatzen, ez baita gure gustukoa inork dekretuen bidez legeak egitea.



Hori guztia gorabehera, dekanok elkargokide berriak animatu nahi izan zituen, eta beterranoak zoriondu zituen, bere esanetan, guztiok "Estatuko fororik onena" osatzen baitute, eta konfiantzaz adierazi zuen guztiok "gogor lan egin behar dugula" aurretik bizitako krisietan bezala birmoldatzeko -industria-birmoldaketa gogorra-. Iraganean onik atera ginen, izan ere, "Bilbokoak gara eta gure herrialdea mundu osoan erreferentzia izatea nahi dugu eta espero dugu."

Parte-hartze horren ostean, BJABOko Abesbatzak, Karmele Barrenaren zuzendaritzapean, hurrengo hauek interpretatu zituen: "My Way", "Swing Low, sweet chariot" espirituala eta "Agur Jaunak".

Ekitaldia amaitu ondoren eta argazki ofizialak atera ondoren, Bazkunak elkargokide berriei eta familiakoei otordu gozoa eskaini zien.

Une horretatik aurrera, elkargokide guztiak Bilboko Gran Casinoko terrazara argitsu eta do-torera iritsi ziren apurka-apurka. Iristean koktel bat eman zieten. Agurrak eta elkarrizketak nagusitu ziren apurka-apurka, gonbidatuek ardokopa bat eskuetan zutela, eta aurretik mahaia erreserbatuta izateak emandako lasaitasuna ageria zen. Lekua aurretik antolatuta izateari esker, jantokira erosoago sar daiteke eta lagun-ondoan egoteak bazkaria atseginagoa izatea ahalbidetzen du.

Jarraian bazkaria zerbitzatu zen. Hasteko, izokinaren eta petaloen aperitibo fina dastatu genuen, ahate-urdaiazpikoaren eta foiearen entsalada eta azpizun-medailoia ondo hornigaiekin, Errioxako ardoekin eta txakolinarekin bustita; amaitzeko, jogurt moussearen azkenburuko freskagarria etorri zen, eta jarraian, kopak eta lehenengo topak.





Ekitaldian agintari ugari egon ziren, baita Bazkunak gonbidatutako kideak ere.

Berlaratuen artean, Bazkuneko langile maiteak, Praktika Juridikoko Eskolako eta Bazkuneko hainbat batzordetako kideak zeuden, guztiak oso dotore jantzita.

Bazkaria amaitu ondoren, Ramón Lasagabaster eta Nahia Llona gure Batzordetako diputatuek Bazkuneko txapelketetako trofeoak eman zituzten. Edizio honetan, hauek izan dira irabazleak:

XAKE-TXAPELKETA

- 1- Jose Felix de la Torre Muñecas
- 2- Javier Iruarrizaga Diez

GIZONEZKOEN PADDELA

- 1- Carlos Fuentenebro - Iñigo Goikoetxea
- 2- Nacho Herrero - Enrique Sanchez

KONTINENTALA

- 1- Javier Fuentes Sodupe
- 2- Joaquin Hernandez Dominguez

MUSA

- 1- Juan Luis Villada Huerta - Aitor Erazukin Navarro
- 2- Herrero-Velarde - Alberto Modrego Revilla

BASKETA

- 1- Equipo de Joseba Regueras
- 2- Equipo de Fernando Garcuñño.

Sariak eman ondoren, DJa, dantzaldia eta kopak etorri ziren. Modu horretan amaitu zen ekitaldia. Hasieran ospetsua izan zen, dibertigarria eta erosoa hasieratik amaierara, eta dotorea alderdi guztiei erreparatuta.

Gran Casinotik atera ondoren, normala den moduan, elkargokide batzuk alboko lokaletara joan ziren. Eta, zorionez, beti bezala, "atzean" geratutako elkargokideak beste batzuetakoak ziren. Duela urtebetetik ezer aldatu ez balitz bezala. Gauza batzuk, une batzuk, betierekoak eta ezabaezinak babilira legez.



Ramón Lasagabaster. Abokatua

KOPA JASO GENUEN

Apirilaren amaieran, Vienan, futboleko lauko torneoak jokatu zen. Abokatuaren elkargo hauetako ekipoak arituz iren: Venezia, Pordenone (Udine), Viena eta Bilbo.

Apirilaren 26an, ostegunean, iritsi ginen, Athletic Europa Leagueko finalerako sailkatu zen partidaren amaieran. Hegazkineko laguntzaileek gogoan izango dituzte oraindik Llorenteren gola ospatzeko bidaiari batzuek egindako oihu eta abestiak. Ostiral goizean, Austriako lankideekin batera, Austriako Auzitegi Gorenaren egoitza bisitatzea joan ginen, Viena eskualdeko Auzitegi Nagusiaren baliokidea. Gidariaren esanetan, 1933. urtean, Austriako alderdi naziaren alde modu bidegabean emandako ebazpen judizial baten ondorioz, Vienako herritarrek aurretik deialdirik egin gabe bildu ziren Justizia Jauregiko ateetan, Jauregia erretzeko asmoz. Asmo hori neurri batean soilik lortu ahal izan zuten. Bestalde, poliziaburuak, herritarrei eutsi ezin ziela ikusita, tiro egitea agindu zuen, eta 89 herritar hil zituzten. Gidariaren esanetan, gertaera hori Austriako historiako egunik beltzena izan zen. Eta horren aurrez aurre, sei urte geroago Hitler jaunari harrera ospetsu eta arranditsua egin zioten hiriko kaleetan.

Bisitaren ostean, Austriako Auzitegi Gorenako magistratu batek hartu gintuen. Koktel txiki bat eskaini zigun auzitegiaren egoitzan, eta jarraian adiskidantzako partida jokatu genuen Justizia Administrazioako epaileek, fiskalek eta langileek osatutako ekipoaren aurka. Partidan dena ondo atera zen bi jokalarik baxu atera zituzten arte: untxiek bezala korrika egiten

zuten, eta bilbotarren artean harridura eragin zuten. 1 eta 0 galdu genuen arren, partidari esker Iñaki Dueñas gure entrenatzaileak ekipoaren makinaria behin betiko koipezatu zuen.

Ostiralean egun librean izan genuen hiria bisitatzeko, eta igandean, apirilaren 29an, Praterren instalazioetara joan ginen txapelketaren lehen egunari aurre egiteko. 40 minutuko partidetan, Pordenone, Venezia eta Vienako ekipoen aurka jokatu behar genuen.

Bagenekien Pordenoneko ekipoak kalitate handia eta defentsa-indar handia zituela. Aurreko txapelketa batzuetan asko sufritu behar izan genuen emaitza positiboak lortzeko. Partidan bi ekipoek praktikotasunari lehentasuna eman zioten bertuosismoaren aurretik, maila honetan horrelakorik baldin badago. Egia esan, defentsan ia-ia bikain egon ginen, eta erasoan zenbait aukera izan genituen irabazteko. Gorkaren parte-hartze nabarmenek italiarren artean uzkurdua eragin zuten. Italiarrek behin eta berriro eskatu zioten arbitro apur bat zorrotz eta inposatzaileari partida amaitu zedila. Berdinketa izan genuen, ez genuen golik sartu, baina gutxi iruditu zitzaigun, garatutako jokoaren kalitatea kontuan hartuta.

Bigarren partida Veneziarekin jokatu genuen. Ekipo hau apur bat ahulagoa zen, eta partida erraz irabaziko genuen, baina langara egindako jaurtiketan zorte txarra izan genuen. Ez zen golik egon, batez ere aurkariaren atezainari esker. Hori dela eta, geroago, txapelketako atezainik onenari emandako saria eskuratu zuen.

Golik gabeko bi berdinketa horien ostean, Vienako ekipoarekin jokatzen genuen finalera igarotzea. Ekipo horrek aurreko bi partidak irabazi zituen. Irabazi egin behar genuen. Markagailuan bi goleko aldea lortu genuen, baina Vienakoek nahiko esutu zuten eta ordu laurden falta zela aldea murriztu ahal izan zuten. Une horretan, gure entrenatzaileak betiko zaintzaileak atera zituen. Jokalariok partidako denborak kudeatzen jakin zuten, tokiko jarraitzaile zaratsuak isildu zituzten kontrakolpe ederrak eginez. Garaipena lortu eta ospatu ondoren, hurrengo eguneko finaleko partidarako prestatu ginen, berriro ere Vienako ekipoaren aurka.

Apirilaren 30a, astelehena, eguzkitsua hasi zen. Partida eguerdiko 12etan zen, eta 33 gradu zeuden. Bitxia bazen ere, agian gure jokalarik askoren esperientziatik, lasai geunden, gauzak ondo eginda, behingoz, txapeladunen kopa lor genezakeela jakinda. Fuentenebro gure kapitainak haize gutxien zuen zelaia hautatu zuen, eta hori ekipoaren moralerako laguntza handia izan zen. Ekipoak joko zoli eta ikusgarria eskaini zuen.

Baina partida bigarren zatian erabaki zen. Gure ekipoaren defentsa-indarrean oinarrituta, Picaza eta Torre jaunek gol bana sartu zituzten kórnerretik. Markagailuko aldea ikusita, Vienakoak emaitzari buelta ematen ahaleginduz iren, baina ez zuten emaitza onik lortu. Une horretan esperientzia izan genuen lagun berriro ere, eta minutu batzuetan markagailuko aldea handitzeko aukera izan genuen. Azkenean, bi gol lortuta, torneoko txapeladunak ginen.


HUTSEN ZUZENKETA

Apirileko 209. zenbakian, zinemaren atalean, "El ídolo de barro" filmari buruzko erreseñan, transkripzio-akatsa dela bide, Joseph Leo Mankiewicz agertzen da film horren egile moduan, baina MARK ROBSON agertu behar zen, film horren benetako egilea baita. Kritikan aipatzen zen "Mas dura será la caída" filmaren egilea ere bera da.

Amaierako txistuaren ostean, jokalaria guztiak zelaian bertan hirugarren zati izeneko egin genuen, ohiko brindisak eginda. Gure aldetik, Italiako kideek behin eta berriro eskatu ondoren, hurrengo torneo Bilbon antolatzen konpromisoa hartu genuen. Gauean, sari-banaketa hiriko jatetxe ezagun batean egin zen. Zelaian bezala, Europako kideekin hitz egin genuen eta esperientziak trukatu genituen, futbolaren zein lanbidearen esparrukoak.

Ekipoko giroa nabarmentzeko aizan zen. Ekipoko kide guztiak baldintza berberetan parte hartu zuten, eta egindako jarduera guztietan adiskidetasuna eta laguntasuna izan ziren nagusi. Zorionez, ez zen lesio garrantzitsurik egon, eta azkenean zalantzan jarri ziren Italiako jokalaria batzuek euskal sabel batzuen bolumen handiari buruz egindako iruzkin barregarriak.

Azken finean, torneoan izandako parte-hartzea arrakastatsu aizan zen, eta horregatik, ekitaldi hauetan parte hartu nahi duten elkargokide guztiak gonbita egin nahi diegu. Horretarako, BJABOko futbol-ekipoan eman behar dute izena, eta Sarriengan ostiral guztietan 14:30ean egiten diren entrenamenduetan eta partidetan parte hartu behar dute.



Gonzalo Apoita. Abokatu-ekonomista

KOSTUETARAKO KONDENAREN FISKALITATEA

Gai honi buruz idatzi nuen lehenengo artikuluan esan nuenez, 2005ean, Tributuen Zuzendaritza Nagusiak (aurrerantzean TZN) prozedura judizialeko “kostuetarako kondena” izenekoaren fiskalitatearen oinarriak ezarri zituen. 2005eko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez egin zuen. Labur-labur, hurrengo esaten zuen:

- Kondenatutako alderdiak benetan ordaintzen duena ez da alderdi irabazlearen abokatuaren eta prokuradorearen ordainsariak (alderdi hori egokitzen zaizkio); horren ordez, alderdi irabazleari kalte-ordaina ordaintzen dio.
- Kondenatutako alderdia ez dago behartuta alderdi irabazleari egiten dizkion ordainketetan atxikipenik egitera.
- Prozesu judizial batean alderdi baten alde kostu judizialen kontzeptuan tasatzen diren kopuruek alderdi horrentzat kalte-ordainaren izaera dute. Hori dela eta, ez da posible ordaindu behar duen alderdiari BEZaren kontzeptuan kopururik jasanaraztea.

Laburbilduz, TZNren arabera, kondenatutako alderdiak ordaintzen duena kalte-ordaina da, eta horren gainean ezin da atxikipenik egin edo BEZ kuotarik jasanarazi.

2012ko martxoan, Bizkaiko Foru Ogasunak, tributukontsulta bati erantzunez (6404 zenbakiko kontsulta, 2012ko martxoaren 20koa), horren inguruan duen iritzia adierazi du. TZNk 2005eko martxoko Ebazpenean adierazitako irizpideak ontzat eman ditu, *“kostuak kobratzeak (hala denean, BEZ barne) auziaren irabazleek zergazarpenean izan dezaketen tribututratamenduari kalterik egin gabe”*. Azken hori gero aztertuko dut berriro, baina aurretik garrantzitsua da BEZak prozesu horretan guztian nolako eragina izan behar duen aztertzea.

Beti eztabaidatu izan da abokatuak eta prokuradoreak kostuetan irabazi duen alderdiari jasanarazitako BEZa kostuak ordaintzera kondenatutako alderdiak ordaindu beharreko kalte-ordainaren zenbatekoan kontuan hartu

behar den edo ez. Nire ikuspuntutik, galdera horren erantzuna honen arabera izango da: lanbide-ordainsarien fakturak zein pertsona edo entitateri igorri (hau da, alderdi irabazlea) eta pertsona edo entitate horrek ordainsari horietan jasanarazitako zerga osorik edo zati batean berreskuratzeko eskubidea badu edo ez badu.

Kostuetara kondenatutako batek benetan ordaintzen duena kalte-ordaina bada eta horren xede bakarra alderdi irabazleari sortutako gastuengatik konpentsatzea bada, gastu horien kopurua kalkulatzeko, ordaintzen duenak jasanarazitako BEZa berreskuratzeko edo ez berreskuratzeko duen aukera hartuko da kontuan. BEZ hori jasaten duenak aitorpen fiskaletan deduzitu ahal badu (hala nola, BEZ haien jardueren esparruan jasanarazten duten merkataritza-entitateak eta profesionalak eta enpresaburuak), BEZa ezin da gastutzat hartu; hala ere, ordaindutako BEZa jasanarazten duenak berreskuratu ezin badu, osorik edo zati batean, orduan gastutzat hartuko da, baina beti berreskuratu ezin duen neurrian.

Azken finean, nire ustez, prozesu judizial batean alderdi irabazleko abokatuak eta prokuradoreek bezeroei jasanarazitako BEZaren kuotak kostuen atal izango dira soil-soilik minuten hartzaileak kopuru horiek berreskuratzeko eskubidea ez duenean; bestela, ez litzateke benetako gastutzat hartuko eta ez da “indemnitzatzeko modukoa” izango.

Martxoaren 20ko erantzunean, Bizkaiko Foru Ogasunak adierazitakoaren arabera, kostuetara kondenatutakoak ordaindu behar ditu *“modu judizialean kuantifikatutako kostuak, hala denean, abokatuaren eta prokuradorearen zerbitzuak kargatzen dituen BEZa barne hartuta”*. Beraz, badirudi epailearen esku uzten duela kostuak kuantifikatzea, baina, hori bai, badirudi onartu egiten duela kasu batzuetan BEZa kalte-ordainaren atala izan daitekeela eta beste batzuetan ez.

Bizkaiko Foru Ogasunak, planteatutako kontsultaren erantzuna bi baieztapen hauekin osatzen du:

- Kostuetara kondenatutako alderdiak ez du eskubiderik bere izenean faktura bat izateko ez ordaindu behar duen BEZaren kuotaren zenbatekoa berreskuratzeko.
- Aurreko guztia kostuak kobratzeak (*hala denean, BEZ barne*) auziaren irabazleek zerga-ezarpenean izan dezaketen tribututu-tratamenduari kalterik egin gabe.

Kostuetara kondenatutakoak ez du eskubiderik berak kontratatu ez dituen zerbitzuekin lotutako ordainsariengatik faktura lortzeko, ezta auziaren alderdi irabazleari emandako zerbitzu profesionaletatik eratorritako BEZaren kuota batzuk deduzitzeko. Hala ere, epaileak edo auzitegiak, ebazpenean, kostuak ordaintzeko kondena dela-eta ordaindu behar duen kalte-ordainaren zenbatekoaren barruan sar dezake.

Lehen esan dudanez, Bizkaiko Foru Ogasunak, erantzun horretan, amaierako ohar bat gehitzen du. Hori dela bide, tribututikuspuntutik azter dezaket zer ondorio dituen irabazlearentzat kostuak kobratzeak: *“kostuak kobratzeak (hala denean, BEZ barne) auziaren irabazleek zerga-ezarpenean izan dezaketen tribututu-tratamenduari kalterik egin gabe”*.

Zalantzarik gabe, kostuak kobratzeak auziaren irabazlearentzat zerga-ezarpenean kargatzeko moduko errenta sortuko du, eta

PFEZn tribututako du pertsona fisikoa bada, edo Sozietateen gaineko Zergan sozietatea bada. Baina tribututu-betebehar hori berez ez da nahikoa emandako zerbitzu profesionalak ordaindu eta horiek jasanarazitako BEZa deduzitu eta ondoren kostuetara kondenatutakoarengandik kalte-ordaina jasotzen duenaren bidegabeko aberastasuna saihesteko. Izan ere, kalte-ordain horretan ordaindutako ordainsariak zein horien BEZa sartuko lirarteke. Hala ere, kasu horietan, bi zenbatekoak kargatzeko moduko errenta moduan hartzen dira.

Azken finean, aurretik deduzitu diren abokatuaren eta prokuradorearen ordainsariak sortutako BEZa barnean hartzen duen kostuetarako kondenak, horretatik eratorri daitezkeen tribututu-betebeharrak alde batera utzita, auziaren irabazlearentzat bidegabeko aberastasuna sortzen jarraitzen du. Hori dela eta, berriro ere, epaitegiak eta auzitegiak dira hori saihesteko ahalmena duten bakarrak, kasuz kasu aztertuz zein izan behar den kostuak ordaintzera kondenatutako alderdiak ordaindu behar duen kalte-ordainaren zenbatekoa, alderdi irabazlearen inguruabarrak kontuan hartuta.

Bilbo, 2012ko apirilaren 16a

Nos hemos
unido a un
equipo en el que
confiam más
de 315.000
personas.

Iker Martínez
y Xabi Fernández
Medalla de Oro JJOO
Atenas 2004 y
Plata Beijing 2008
Regatistas de BAT Basque Team



gana en salud con la mayor red sanitaria

IMQ Abogados

Todo lo que le pides a un seguro médico

- Sin esperas, completa cobertura sanitaria para ti y los tuyos
- Tecnología médica de vanguardia
- Centros propios y las principales clínicas privadas de Euskadi
- Libre elección entre más de 35.000 profesionales
- Prestigiosos centros a nivel nacional
- Sin copagos (excepto psicoterapia)
- Seguro de accidentes para el titular de la póliza, desde sólo 5,13 €/mes*.
- Descuentos por forma de pago y por número de beneficiarios
- Importantes ventajas fiscales

* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

Exclusivo abogados
desde 42,98 €/persona/mes

Oferta exclusiva para nuevos clientes miembros de los Colegios de Abogados del País Vasco, cónyuges e hijos, menores de 65 años. Consultar coberturas con franquicia. Ver condiciones generales de las pólizas. Precios 2012. R.P.S.: 69/06

IMQ, Aseguradora
Médica Oficial de **basque team**



Medicina de vanguardia

902 311 902
agencia@imq.es
www.imq.es

IMQ
Tu seguro médico

KUTSADURA ELEKTROMAGNETIKOA



José Miguel Lozano, Alfonso Terceño, Agustín Bocos, Ceferino Maeztu eta José Alberto Arrate

Joan den apirilaren 27an, Abokatuen Bazkunean, "Kutsadura elektromagnetikoa: eztabaida juridikoaren eta osasun-eztabaidaren gaur egungo egoera. Balizko defentsa legearen aurkako instalazioen aurrean" jardunaldia egin zen, BJABOko ingurumeneko ikerketa taldeak antolatuta, Alfonso Terceñoaren ordezkaritzapean.

Nazario Oleaga Bazkuneko dekanok egin-dako aurkezpen labur baten ostean, Agustín Cobos Valladolidedeko elkargoko abokatuak hartu zuen hitza. Telekomunikazioen arloan autonomia-erkidegoek eta udalek dituzten eskumenak eta erradiazio elektromagnetikoak osasun- eta ingurumen-arrisku moduan jorratu zituen.

Hizlaria Europako legeria aztertzen hasi zen; Europako Kontseiluak, 1999. urtean, telefonia mugikorrerako erreferentziako mailak gomendatu zituen. Erradiazio elektromagnetikoak osasunerako osagai kaltegarriak zituela adierazi zen, eta jendea arriskuen berri ematea eta arlo horretan ikerketa sustatzea garrantzitsua zela nabarmendu zen.

2008. eta 2009. urteetan, Europako Parlamentuak, ebazpenetan, kaltetutako pertsonen kopuruak gora egin zuela eta gaixotasun berriak agertu zirela ohartarazi zuen. Mugak ez dira eguneratu eta horien inguruan eztabaida dago es-

tatuen artean. Bestalde, aseguru-polizetan kutsadura elektromagnetikoak eragindako kalteak kanpoan uzten dira.

Egoera kontuan hartuta, Batzordeari eta estatuei ekintza hauek egiteko eskatzen zaie: esposizio mailak berrikustea, herritarrei informazio gehiago ematea eta arlo horretako ikerketari laguntza publiko gehiago ematea.

Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 27ko ebazpenean arreta printzipioa aipatzen zen: osasun-neurriak har daitezke arriskuak egiaztatuta daudela itxaron gabe (KJAE 08/05/05); hala ere, oraindik ez dago zuzentzaririk gai horren inguruan.

Espainiako legeriari dagokionez, 1066/2001 Errege Dekretuak esposizio-mailak ezarri zituen: $f/200 = 450, 900$ eta 1000 mikrowatt/cm² eta kontrol-sistemak (aurretiazko azterketa zehatza esposizio erradioelektrikoaren

mailei dagokienez pertsonak har ditzaketen instalazioen inguruetan, eta teknikari eskudunak urtero egindako ziurtagiria, Ministeriora igortzen dena).

Jarraian, estatuaren eskumen-esparruan oinarritu zen. Estatuaren eskumen eksklusiboak dira telekomunikazioak eta irratikomunikazioa; eskumen bananduak dira osasuna (oinarriak eta koordinazio orokorra) eta ingurumena (oinarritzko legeria).

“

Aseguru-polizetan kutsadura elektromagnetikoak eragindako kalteak kanpoan uzten dira

”



Bestalde, Espainiako Konstituzioaren 137. artikulua araberaren arabera, udalek autonomia dute haien interesak kudeatzeko. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.3 artikuluan, Osasun Legearen 42.3 artikuluan eta Telekomunikazioen Lege Orokorraren 29. artikuluan udalerrien eskumenak ezarri dira.

Jurisprudentziari dagokionez, 2001etik udalek baldintzak ezar ditzakete antenak eta telekomunikazio-sareak ezartzeko ingurumenari, osasun publikoari, hirigintzari... lotuta, betiere, estaldura badago, hau da, operadoreek haien eskumena gauzatu ahal badute udalek mailak ezarri ahal izango dituzte.

Hizlariak Auzitegi Gorenaren 2012ko abenduaren 13ko epaia aipatu zuen. Elcheko ordenantza baten bidez, palmondoen ingurua babestu egin nahi zen antenak jartzetik. Auzitegi Gorenaren arabera, inguru jakin batzuetan antenak jartzeko debekuak ez du esan nahi estaldura ematea eragotzi behar denik, eta frogaz zuzen operadoreari dagokio; operadoreak estaldurarik ez dagoela egiaztatzen ez duenez, udalaren murrizketa legezkoa da.

Hala ere, Auzitegi horrek, 2011ko martxoaren 22ko epaian, Kataluniako dekretuari dagokionez, deuseztat hartu zituen esposizio mailen murrizketa, gutxienezko babes distantziak eta teknologia eskuragarri hobea justifikatzea, ezin baita hutsalduek estatuak telekomunikazioen arloan duen eskumen eskusiboa. Auzitegiaren ustez, murrizketa horrek merkaturatzen eta enpresa-askatasunean eragiten du.

Azken ideia hori Konstituzio Auzitegiaren 102/1995 epaian jaso da. Horren arabera, "oinarrizko legeriak antolaketa eginkizuna du, gutxiengoen bidez, eta horiek uneoro errespetatu behar dira. Hala ere, arlo horretan eskumenak ditzuten autonomia-erkidegoek babes maila handiagoak ezar ditzakete. Mailakako geruzatzea dago: estatukoa behar bestekoa eta homogenea izan behar da, baina hobetzeko modukoa, autonomia-erkidego bakoitzaren inguruabarretara egokitzeko".

Hala ere, beste kontraesan bat ere badago. Konstituzio Auzitegiaren arabera (Gaztela-Mantxako legea), autonomia-erkidegoak ezin ditu estatuko mailak aldatu, eta baliogabetzat jotzen du operadoreek betebeharra izatea hobekuntza teknologikoak gehitzeko, betebeharrak ez betetzeagatik igorpen mailak eta arau-haustea murrizten laguntzeko. Auzitegiak 2002an emandako auto batean ezin zen justifikatu 8/2001 Legea etetea (Gaztela-Mantxa), operadorearen interes ekonomikoek lehentasuna izan ezin zu-

tela ulertzeagatik; beharrezkoa zen egiaztatzea arauak kalte konponezinak eragingo dituela.

Ondorio moduan, Agustín Bocosek esan zuen herritarren artean segurtasunik eza eta zalantza daudela estatuaren pasibotasuna eta jurisprudentzia-irizpideen aldaketak kontuan hartuta. Hizlariaren esanetan, autonomia-erkidegoek eta udalek esposizio mailak murriztu eta kontrol-bideak handitu behar dituzte. Bide horiek etengabeak eta sarbide askekoak izan behar dute.

Jardunaldiko bigarren hizlaria Ceferino Maeztu Medikuntzako doktorea eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Bioelektromagnetismo Departamentuko zuzendaria izan zen. Eremu elektromagnetikoek osasunean duten eraginaren inguruan zientziak gaur egun duen egoera azaldu zuen.

Maiztasun txikitik maiztasun handira aurrerapen teknologikoa egon da, osagai asko aldi berean jasotzen ditugu. Inork ez du legerik ematen pertsona batek jaso behar duen horren inguruan; beharrezkoa da kontrol-prozedura bat egotea jendearen osasunean nolako eragina duen jakiteko.

Adituaren esanetan, mugikorrek gaitasun txikiagoekin funtzionatu dezakete, konpainien artean akordioa egon beharko litzateke. Bestalde, kritikatu egiten du oinarrizko mugek eta erreferentziako mailek langileak eta herritarrak bereiztea, eta herrialde desberdinetan mugak desberdinak direla.



Herritarren artean segurtasunik eza eta zalantza daude estatuaren pasibotasuna eta jurisprudentzia-irizpideen aldaketak kontuan hartuta



Agustín Bocos eta Ceferino Maeztu



Mailak modu ikusgarrian handitu dira: osagai guztiak, hari gabeko teknologia... Hizlariak planteatu zuen zein zen horri guztiari eusteko muga. 2009tik burmuineko fisiologiari buruzko ikerketa asko egin dira, hala nola behatu egin da burmuineko infartu txikiak arrazoi honekin duten lotura.

Kutsadura elektromagnetikoak aztertzen ari diren gaixotasun askorekin duen lotura aipatu zuen. Kutsadura horrek dituen ondorio arriskutsuei buruz ohartarazi zuen.

Jardunaldiko hirugarren hizlaria José Alberto Arrate Gipuzkoako Elkargoko abokatua izan zen. "Ekintza publikoak eta pribatuak eremu elektromagnetiko artifizialek ukitutako



Alfonso Tercveño eta Agustín Bocos

pertsonak defendatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Konstituzio Auzitegiaren 8/2012 epaia”.

“

Inork ez du legerik ematen pertsona batek jaso behar duen horren inguruan

”

Lehenengo eta behin, maiztasun txikiko eta handiko gorputz elektromagnetikoa zer den argitu zuen: lehenengoak goi-tentsioko lineak eta transformadoreak dira, eta bigarrenak telefono mugikorrak.

80ko hamarkadan telefono mugikorren ondorioei buruzko kezak hasi ziren, Salzburgoko konbentzioan. Arduratzekoa da mugikorren konpainiek aseguruetan klausula bereziak izatea, ondorio elektromagnetikoen gaineko erantzukizunik ez dutela esanez.

Bestalde, Espainiako legerian, 1066/2001 Errege Dekretuaren bidez, jabari publiko erradioelektrikoa babesteko baldintzak ezartzen dituen erregelamendua onetsi zen. Horren arabera, 1999ko gomendioaren mugak zaharkituta geratu dira, eta beraz, legezko hutsunea dago. Europak ezarritako mugak eta Espainian aplikatutakoak desberdinak dira, eta ukituen artean segurtasunik eza eragiten dute.

Ukitutako pertsonak egin ditzaketen ekintza pribatu eta publikoak aztertu zituen. Bizitza pribatuan bereizi egiten dira inmisioen eta Jabetza Horizontalaren Legearen bidea. Lehenengoak indarra lortu du Europako Kontseiluaren ebazpena dela bide. 590. artikulua aipatu zuen, Kode Zibilaren

348. artikuluekin eta Murtziako Probintzia Auzitegiaren 80/2001 Epaiarekin lotuta.

Bestalde, Jabetza Horizontalaren Legearen bideak aldaketa izan du, auzokoen eraikin batean telekomunikazioak ezartzeko beharrezkoa den quorumari dagokionez. Lehen quorumaren 3/5 alde egonez gero instalatu zitekeen, baina gaur egun beharrezkoa da jabe guztiak aho batez ados egotea. Aipatzeko moduko epai moduan, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak 1999ko apirilaren 16an emandakoa aipatu behar da.

“
Arlo honen inguruko arauketak ezin du eskurik sartu merkatu bakarrean
”

Bestalde, ekintza publikoen artean maiatzaren 29ko 158/2001 Dekretua aipatu behar da, telefono mugikorren instalazioen eta erradiokomunikazioko beste instalazio batzuen ingurumen-antolamenduari buruzkoa (Kataluniako Generalitatea). Auzitegi Gorenak, 2011ko martxoaren 22ko epaian, erreferentziako mailak, babes distantziak, hiriz kanpoko mugaketarako proiektu teknikoak idazteko aginduak eta joan-etorrietan plano berezirik edo ingurumen-antolamendurako planorik ez dagoenean aurkeztu beharreko oinarriko aurkezpen gehigarria deusezak zirela adierazi zuen.



Nazarío Oleaga

Tokiko enteek eta autonomia-erkidegoek arautu ahal izango dute telekomunikazio-konpainietan esku hartzen ez badute. Garrantzitsuena merkatu bakarrean eskurik ez sartzea da.

Arlo horrekin lotutako arauak aipatu zituen, hala nola: Gaztela-Mantxako 8/2001 Legea, Gaztela eta Leongo 267/2001 Dekretua, Nafarroako Komunitateko 10/2002 Foru Araua...

Konstituzio Auzitegiaren 8/2012 epaia aztertu zuen. Epaia horrek Gaztela-Mantxako Erradiokomunikazio Instalazioak antolatzekeko ekainaren 28ko 8/2001 Legearen artikulua ba-



José Miguel Lozano

tzuk ezetzatu zituen, zehatz esanda 7. artikulua, tarteki honi dagokionez: operadoreek betebeharra dute agertzen diren hobekuntza teknologikoak gehitzeko, sistema erradianteen igorpen mailak murrizten laguntzen badute. Bestalde, 19. artikuluaen bigarren atala deuseztatu da. Horren arabera, arau-hauste larria da igorpen erradioelektrikoak modu esanguratsuan murrizten laguntzen duten hobekuntza teknologikoak hobetzeko betebeharra betetzea.

Hizlariarentzat, paradoxikoa da artikulua batzuk ez ukitzea, 1., 2. eta 3. eranskinak. Lehenengoa hirikoa ez den lurzoruan eremu elektromagnetiko ez-ionizatzaileen aurreko esposizioaren gehiengo maila baimenduei buruzkoa da; bigarrenean telefono mugikorren antenek inguru irekietan edo

esposizio inguruetan edo etengabeko erabilera izan behar dituzten babes inguruak edo gutxieneko distantziak aipatzen dira, eta amaitzeko, hirugarren eranskinean erreferentziako maila aipatzen da hiri lurzoruan eta zentro sentikorretan.

Hizlariaren esanetan, bitxia da alderdi teknikoak mantentzea autonomia-erkidegoari hori arautzeko eskumena ukatzen zaion arren. Hala ere, egia esan, Gaztela-Mantxan hamar urte egin dira arauketa horrekin eta ez da inolako kalterik sortu Telekomunikazioen Sistema Orokorrean ez merkatu bakarrean.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak, 2011ko urriaren 5ean, Europako Kontseiluaren 1815 Ebazpenari atxikitzea adostu zuen, berezko aditu-txostenak eta Konstituzio Auzitegiak 8/2012 Epaian eta Telekomunikazioen 32/2003 Lege Orokorrean aipatzen diren txostenak erabiliz.

Amaitzeko, udal ordenantzei dagokienez, hizlariaren esanetan Auzitegi Gorenak baimentzen du planak, hirigintza, ingurumena eta osasuna arautzen duten ordenantzak ezartzea; beharrezkoa da ordenantza bermatzaileen alde egitea.

Jardunaldiko azken hizlaria José Miguel Lozano izan zen. Euskal Herria Kutsadura Elektromagnetikoaren aurka plataformako ordezkari moduan, eremu elektromagnetikoen eta osasunaren arteko lotura eztabaidatuari buruzko erabaki politikorik ez egotea salatzeke oinarriak azaldu zituen.

Etorkizunean ondorio larriak saihestu nahi badira gaur egungo egoera konpontzeko beharra aipatu zuen; amiantoaren gaur egungo egoera aztertu zuen kutsadura elektromagnetikoak etorkizunean izan ditzakeen kalteekin konparatuta, baita Europako eta autonomia-erkidegoko ebazpenak ere.

Azken hizlariaren hitzak eta Bocos y abogados abokatuenak Bazkuneko webean ikus daitezke.



8/2012 KAEK alderdi teknikoak mantentzen ditu autonomia-erkidegoari gaia arautzeko eskumena ukatzen dion arren



Soluciones integrales de Gestión Documental, Facturación Electrónica y Certificación Digital.



Sistemas Digitales Multifunción.

Fax.

Informática Profesional.

Gestores Documentales.

selzur
SOCIO TECNOLÓGICO

Plaza Ibaiondo, 4 - P. Empresarial Ibaiondo
48940 LEIOA Bizkaia
Tlf.: +34 94 4425216 · Fax: +34 94 4425843
e-mail: administracion@selzur.com

www.selzur.com





PASA DEN HILABETEAN BAZKUNeko LIBURUTEGIAK EROSI DITUEN LIBURUEN ARTEAN, HURRENGO HAUEK INTERESGARRIAK IRUDITZEN ZAIZKIGU:

COMENTARIOS A LA LEGISLACIÓN DE ORDENACIÓN DE LA EDIFICACIÓN



Ángel Carrasco Perera (dir).

Aranzadi

➤ Liburu hau eraikuntza antolatzeko araudiari egindako iruzkinen lau edizioiko aurreko argitalpen-espeizientzia baten emaitza da. Eraikuntzaren arloan dagoen araudia osorik aztertzen da, Eraikuntza Antolatzeko Legea eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa barne hartuta. Eraikuntza Antolatzeko Legeko erakundeen zerrenda errespetatu da eta alderdi berriak gehitu dira, eraikuntzaren araubide juridikoan garrantzitsuak izan arren Legean ez baitziren arautu. Beste horrenbeste gertatzen da autonomia-erkidegoen eskumenak egikaritzean arautu diren arloekin. EAL aldarrikatu zenetik denbora igaro da, eta horri esker, aurreko edizioetan EALera egokitu gabe zegoen jurisprudenzia-aparatua gehitu da. Emaitza liburu homogeneoa eta osoa da, Espainiako higiezinaren eraikuntzaren arauketa juridikoaren inguruan.

EL DERECHO DE LOS CONTRATOS PÚBLICOS EN LA UNIÓN EUROPEA Y SUS ESTADOS MIEMBROS




Miguel Sánchez y Jesús del Olmo

Lex Nova

➤ Duela berrogei urtetik kontratazio publikoari buruzko zuzenbidea egiten ari dira Europan. Horren bidez, estatu kideetako nazio-legerien harmonizazio partziala egin nahi da, Europako ekonomiaren sektore garrantzitsu horretan lehia aske eta berdina bermatzeko. Liburu honetan kontratazio publikoaren Europako zuzenbidea aztertzen da modu errealista eta praktikoa, eta horretarako, Justizia Auzitegiaren jurisprudenzia eta estatu kideek onetsi eta aplikatzen duten zuzenbidea aztertu dira. Mota honetako azterketari esker egiaztatu ditzakegu, batetik, zein diren kontratazio publikoaren araubidea harmonizatzekeo prozesuak dituen arazo juridikoak eta, bestetik, zuzentarauak estatuetako zuzenbidean sartzeko moduak, kasuan kasuko tradizio juridiko eta administratiboaren arabera. Konparazio-interesa alde batera utzita, estatu kideek arlo horren inguruan duten legeria sakondu dezakete horretan interesa dutenek edo arlo hori erabilgarri ikusten dutenek, abokatuak, enpresak zein zuzenbide publikoaren ikerlariak izan.

ESTUDIOS JURÍDICOS: 1953-2011



Luis Díez-Picazo

Civitas

➤ Luis Díez-Picazo irakaslearen “Ensayos Jurídicos” lanean egileak urte askotan argitaratutako doktrina-artikuluak eta bestelako lanen bilduma sistematizatu egin da. Irakaslearen espezialitatea kontuan hartuta, gehienak zuzenbide zibileko azterketak dira, batez ere ondarezko zuzenbide zibilekoak, baina “erabateko legelaria” denez (hala dio Eduardo García de Enterría irakasleak lanaren aurkezpenean), bildutako 300 lanetan baino gehiagotan zuzenbideko arlo guztiak jorratzen dira ia-ia (filosofia, konstituzio-zuzenbidea, merkataritza-zuzenbidea, etab.).

I. Liburukian zuzenbidearen teoria orokorra, iturriak eta zuzenbide subjektiboa, preskripzioa barne hartuta, pertsona zuzenbidea eta familia zuzenbidea jorratzen duten azterketak daude.

II. Liburukian ondarezko zuzenbide zibilaren gai nagusiak lantzen dira, eta amaitzeko, III. Liburukian, gauzen zuzenbidea eta Jabetza Erregistroa, oinordetza zuzenbidea eta merkataritza zuzenbidea jorratzen dira. Askotariko gaiet buruzko beste entsegu batzuk ere badaude. Aipatzekoak dira zuzenbideari eta literaturari buruzkoak, eta egileak gure inguruko legelariak ezagunegi buruz egindako azalpen biografikoak, hala nola Federico de Castro maisuari, Jerónimo González jaunari eta Juan Vallet de Goytisoló jaunari buruzkoak.



BAZKUNeko LIBURUTEGIAK EROSITAKO BESTE LIBURU BATZUK

ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEA

Formularios de la ley de la jurisdicción contencioso – administrativa, Martín Valdivia, Salvador M^a Lex Nova (Valladolid)

Régimen jurídico del sector postal: comentario a la Ley 43/2010, de 30 de diciembre, del servicio postal universal, de los derechos de los usuarios y del mercado postal, Petit Lavall, M^a Victoria Tirant lo blanch (Valencia)

Tratado de derecho alimentario, Recuerda Girela, Miguel Ángel (dir.), (otros) Aranzadi (Cizur Menor)

Comentarios a la ley de extranjería y su nuevo reglamento, Cavas Martínez, Faustino (dir.), (otros) Civitas (Cizur Menor)

Incompatibilidades de los funcionarios públicos, Lorenzo de Membiela, Juan B. Aranzadi (Cizur Menor)

La nueva regulación de la inmigración y la extranjería en España: régimen jurídico tras la L.O 2/2009, el Real Decreto 557/2011 y la Ley 12/2009, Boza Martínez, Diego (coord.), (otros) Tirant lo blanch (Valencia)

La resolución de los contratos administrativos por incumplimiento del contratista, Barrero Rodríguez, concepción Lex Nova (Valladolid)

Control interno y fiscalización del presupuesto municipal: fundamentos, metodología, formularios, casos prácticos y modelos de informes, Viñas Bosquet, José P. Dapp (Pamplona)

ZUZENBIDE ZIBILA

Ensayos jurídicos 1953 - 2011: Tomo I teoría general, derecho subjetivo, derecho y masificación social, tecnología y derecho, derecho de la persona y derecho de familia. Tomo II derecho de obligaciones y contratos, derecho de daños y enriquecimiento injustificado. Tomo III derechos reales, derecho registral, derecho de sucesiones, derecho mercantil y varios, Diez - Picazo, Luis Civitas (Cizur Menor)

La responsabilidad jurídico – sanitaria, Gallardo Castillo, M^a Jesús (dir.), Cruz Blanca, M^a José (coord.), (otros) La ley (Madrid)

TRIBUTU-ZERGA ZUZENBIDEA

Formularios prácticos fiscal 2012, Juan Lozano, Ana M^a, Hernández Guijarro, Fernando, (otros) Francis Lefebvre (Madrid)

NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA

El derecho de los contratos públicos en la Unión Europea y sus estados miembros, Sánchez Morón, Miguel (dir.), Olmo Alonso, Jesús del (coord.) Lex Nova (Valladolid)

LAN ZUZENBIDEA

Aspectos laborales de la reestructuración empresarial, Martín Jiménez, Rodrigo (dir. y coord.)

Sempere Navarro, Antonio (dir. y coord.), (otros) Aranzadi (Cizur Menor)

La reforma del proceso laboral: la nueva ley reguladora de la jurisdicción social, Blasco Pellicer, Ángel (dir.), (otros) Tirant lo blanch (Valencia)

La prevención de riesgos laborales en las comunidades de propietarios, Agun González, Juan José, Estardid Colom, Federico Tirant lo blanch (Valencia)

El nuevo proceso laboral: comentarios a la Ley 36/2011, de 10 de octubre, reguladora de la jurisdicción social, Garberi Llobregat, José Civitas (Cizur Menor)

La garantía jurisdiccional de las prestaciones de dependencia en el marco de la reforma del proceso social, González de Patto, Rosa M^a Bomarzo (Albacete)

El despido colectivo y sus elementos configuradores tras las recientes reformas, Monereo Pérez, José Luis Tirant lo blanch (Valencia)

Formularios procesales sociales: adaptados a la Ley 36/2011, de 10 de octubre, reguladora de la jurisdicción social, Tarraga Poveda, José Laborum (Murcia)

Prevención de riesgos laborales y accidente de trabajo en la ley reguladora de la jurisdicción social, Alfonso Mellado, Carlos L. Bomarzo (Albacete)

La reforma del mercado de trabajo y la Ley 35/2010, Rodríguez - Piñero, Miguel (dir.), (otros) La ley (Madrid)

MERKATARITZA ZUZENBIDEA

Estudio sobre las implicaciones laborales, mercantiles y fiscales de la modificación estructural de la sociedad laboral, Elorza Guerrero, Fernando, (otros) Marcial Pons (Madrid)

Nulidad de los contratos swapp en la jurisprudencia, García Angulo, Bernardo L. Eolas (León)

Operaciones mercantiles y productos de inversión de los mercados financieros, Saavedra Ortiz, Juan José (coord.), Serrano Acitores, Antonio (coord.), (otros) Bosch (Barcelona)

Tratado de la prenda, Veiga Copo, Abel B. Civitas (Cizur Menor)

ZIGOR ZUZENBIDEA

El tráfico de drogas y la atipicidad de su tenencia, Martínez Rodríguez, José Antonio Bosch (Barcelona)

ZUZENBIDE POLITIKOA

La protección del honor, la intimidad y la propia imagen en internet, Contreras Navidad, Salvador Aranzadi (Cizur Menor)

Libertad de expresión, discurso extremo y delito: una aproximación desde la constitución a las fronteras del derecho penal, Rodríguez Montañés, Teresa Tirant lo blanch (Valencia)

ZUZENBIDE PROZESALA

Teoría y práctica del proceso monitorio: comentarios y formularios, Martín Jiménez, Carlos Manuel Lex Nova (Valladolid)

Habeas Corpus frente a detenciones ilegales, Diego Diez, Luis Alfredo de Bosch (Barcelona)

La prueba en el proceso penal: doctrina de la sala segunda del tribunal supremo, Rives Seva, Antonio Pablo (dir.), (otros) Aranzadi (Cizur Menor)

Proceso penal: cuestiones generales, procedimiento abreviado, proceso ordinario, juicios rápidos, procesos especiales, Sospedra Navas, Francisco (coord.), (otros) Civitas (Cizur Menor)

HIRIGINTZA

Comentarios a la legislación de ordenación de la edificación, Carrasco Perera, Ángel, (otros) Aranzadi (Cizur Menor)



DERECHO FISCAL

➤ Orden Foral 852/2012, de 16 de abril, por la que se aprueba el modelo IDP de denuncia pública en materia tributaria. (BOB 23-4-12).

Mediante la denuncia pública, se podrán poner en conocimiento de la Administración tributaria hechos o situaciones que puedan ser constitutivos de infracciones tributarias o tener trascendencia para la aplicación de los tributos. Recibida una denuncia, se remitirá al órgano competente para realizar las actuaciones que pudieran proceder.

El objeto de la presente Orden Foral es, la aprobación de un modelo de impreso que permita una cierta uniformidad de las denuncias recibidas, facilitando con ello tanto su posterior tratamiento como la maximización de la eficacia de la información suministrada en la planificación y desarrollo de las actuaciones de lucha contra el fraude fiscal.

DERECHO LABORAL Y DE SEGURIDAD SOCIAL

➤ Orden JUS/797/2012, de 29 de marzo, por la que se regula la duración de la jornada general de trabajo en cómputo anual y las de las jornadas en régimen de dedicación especial para el Cuerpo Superior Jurídico de Secretarios Judiciales. (BOE 18-4-12).

➤ Real Decreto-ley 16/2012, de 20 de abril, de medidas urgentes para garantizar la sostenibilidad del Sistema Nacional de Salud y mejorar la calidad y seguridad de sus prestaciones. (BOE 24-4-12).

El Real Decreto consta de 10 artículos distribuidos en V títulos. En el capítulo 1 se define la condición de asegurado, como aquella persona que tiene derecho a la asistencia sanitaria en España con cargo a los fondos públicos, con un sentido mucho más restringido que el anterior. En el capítulo II se establecen modificaciones para conseguir la homogeneidad entre los servicios de salud de las diferentes CCAA, así como hacia la claridad, transparencia e información a la ciudadanía para que pueda conocer

con exactitud el alcance de la cobertura de sus derechos. El capítulo III, regula medidas de cohesión y garantía financiera.

El Capítulo IV incorpora determinadas medidas relacionadas con la prestación farmacéutica. Así, se actualiza el vigente sistema de aportación por parte del usuario y se introducen cambios en el mismo, de modo que se adecue al actual modelo de financiación del Sistema Nacional de Salud por los presupuestos generales del Estado.

En el Capítulo V se contemplan medidas destinadas a corregir determinadas situaciones estructurales en relación con los recursos humanos, verdaderos activos del Sistema Nacional de Salud.

➤ Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 63/2012, de 3 de abril, por el que se regula para el año 2012, el tercer nivel adicional de protección para las personas dependientes en grado I nivel 2, en relación a la prestación para cuidados en el entorno familiar, regulada en el Decreto Foral 179/2011, de 29 de noviembre. (BOB 13-4-12).

OTROS

➤ Real Decreto-ley 12/2012, de 30 de marzo, por el que se introducen diversas medidas tributarias y administrativas dirigidas a la reducción del déficit público. (BOE 31-3-12).

Se introducen algunas modificaciones en el Impuesto de Sociedades con el fin de que las grandes empresas, poseedoras de mayor capacidad contributiva necesaria coadyuven al sostenimiento de las finanzas públicas.

A su vez, se modifica el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para aplicar las modificaciones efectuadas en el Impuesto sobre Sociedades en relación con la libertad de amortización, al tiempo que se determina la tributación de la renta obtenida en la posterior transmisión del bien que hubiera sido objeto de dicha amortización acelerada.

Finalmente, con carácter exclusivo para el año 2012, se establece un gravamen especial sobre las rentas de fuente extranjera que permite la repatriación de dividendos o la transmisión de participaciones, correspondientes a entidades que, pese

a realizar actividades empresariales en el extranjero, se localizan en territorios de nula tributación o en paraísos fiscales, de manera que esta circunstancia impide la aplicación del régimen de exención.

Se realizan algunos ajustes técnicos en la imposición sobre las labores del tabaco y en el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, se convierte en potestativa para los Ayuntamientos la aplicación de la reducción de la base imponible cuando se modifican los valores catastrales como consecuencia de un procedimiento de valoración colectiva de carácter general.

Se modifica la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas para lograr una mejor utilización de las capacidades públicas de gestión del patrimonio inmobiliario, Por último se considera importante favorecer que los obligados tributarios puedan ponerse voluntariamente al corriente de sus obligaciones tributarias regularizando también situaciones pasadas, siguiendo en esta línea la norma penal que admite la exoneración de responsabilidad penal por estas regularizaciones voluntarias efectuadas antes del inicio de actuaciones de comprobación o, en su caso, antes de la interposición de denuncia o querrela. A tal efecto se introduce la correspondiente modificación en la Ley General Tributaria.

➤ Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera. (BOPV 16-4-12).

➤ Real Decreto-ley 14/2012, de 20 de abril, de medidas urgentes de racionalización del gasto público en el ámbito educativo. (BOE 21-4-12).

➤ Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera. (BOE 30-4-12).

Los tres objetivos de la Ley son: Garantizar la sostenibilidad financiera de todas las Administraciones Públicas; fortalecer la confianza en la estabilidad de la economía española; y reforzar el compromiso de España con la Unión Europea en materia de estabilidad presupuestaria. Con el cumplimiento de estos tres objetivos se pretende consolidar el marco de la política económica orientada al crecimiento económico y a la creación del empleo.

ZERGA ZUZENBIDEA

> 852/2012 Foru Agindua, apirilaren 16koa. Honen bidez, **zergen arloko salaketa publikorako IDP eredua onartzen da** (BAO 12-4-23).

Salaketa publikoaren bidez Zerga Administrazioari jakinarazi ahal zaizkio zergen arloko arau-hauste izan daitezkeen egitateak edo egoerak, edo zergen aplikazioan eragina eduki dezaketenak. Horrelako salaketa bat jasoz gero, organo eskudunari bidaliko zaio, bidezko jarduketak egin ditzan.

Foru agindu honen xedea inprimakiredu bat onartzea da, jasotzen diren salaketen nolabaiteko uniformetasuna ahalbidetzeko. Hala, salaketon tratamendua errazago egitea lortuko da, eta zerga-iruzurraren aurkako borrokarako jarduketak plangintza eta garapena egiterakoan maximizatu egin ahal izango da jasotako informazioaren eraginkortasuna.

LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZA

> 797/2012/JUS Agindua, martxoaren 29koa. Honen bidez **Idazki Judizialen Kidego Nagusiko lanaldia arautzen da, urteko lanadi arruntari dagokionez eta arduraldi bereziari dagokionez** (BOE 12-4-18).

> 16/2012 Errege Dekretu Legea, apirilaren 20koa, **Osasun Sistema Nazionala bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriak ezartzen dituena** (BOE 12-4-24).

El Real Decreto consta de 10 artículos distribuidos en V títulos. En el capítulo 1 se define la condición de asegurado, como aquella persona que tiene derecho a la asistencia sanitaria en España con cargo a los fondos públicos, con un sentido mucho más restringido que el anterior. En el capítulo II se establecen modificaciones para conseguir la homogeneidad entre los servicios de salud de las diferentes CCAA, así como hacia la claridad, transparencia e información a la ciudadanía para que pueda conocer con exactitud el

alcance de la cobertura de sus derechos. El capítulo III, regula medidas de cohesión y garantía financiera.

El Capítulo IV incorpora determinadas medidas relacionadas con la prestación farmacéutica. Así, se actualiza el vigente sistema de aportación por parte del usuario y se introducen cambios en el mismo, de modo que se adecue al actual modelo de financiación del Sistema Nacional de Salud por los presupuestos generales del Estado.

En el Capítulo V se contemplan medidas destinadas a corregir determinadas situaciones estructurales en relación con los recursos humanos, verdaderos activos del Sistema Nacional de Salud

> Bizkaiko Foru Aldundiaren 63/2012 Foru Dekretua, apirilaren 3koa. Honen bidez, **2012. urtean, 1. graduako 2. mailako mendetasuna dutenentzako hirugarren babes-maila osagarria arautzen da**, azaroaren 29ko 179/2011 Foru Dekretuak arautzen duen **familia barruko zaintzetarako prestazioari dagokionez** (BOB 13-4-12).

BESTELAKOAK

> 12/2012 Errege Lege Dekretua, martxoaren 30ekoa, **defizit publikoa murrizteko zenbait tributu- eta administrazio-neurri sartzen dituena** (BOE 12-3-31).

Se introducen algunas modificaciones en el Impuesto de Sociedades con el fin de que las grandes empresas, poseedoras de mayor capacidad contributiva necesaria coadyuven al sostenimiento de las finanzas públicas.

A su vez, se modifica el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para aplicar las modificaciones efectuadas en el Impuesto sobre Sociedades en relación con la libertad de amortización, al tiempo que se determina la tributación de la renta obtenida en la posterior transmisión del bien que hubiera sido objeto de dicha amortización acelerada.

Finalmente, con carácter exclusivo para el año 2012, se establece un gravamen especial sobre las rentas de fuente extranjera que permite la repatriación de dividendos o la transmisión de participaciones, correspondientes a entidades que, pese

a realizar actividades empresariales en el extranjero, se localizan en territorios de nula tributación o en paraísos fiscales, de manera que esta circunstancia impide la aplicación del régimen de exención.

Se realizan algunos ajustes técnicos en la imposición sobre las labores del tabaco y en el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, se convierte en potestativa para los Ayuntamientos la aplicación de la reducción de la base imponible cuando se modifican los valores catastrales como consecuencia de un procedimiento de valoración colectiva de carácter general.

Se modifica la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas para lograr una mejor utilización de las capacidades públicas de gestión del patrimonio inmobiliario, Por último se considera importante favorecer que los obligados tributarios puedan ponerse voluntariamente al corriente de sus obligaciones tributarias regularizando también situaciones pasadas, siguiendo en esta línea la norma penal que admite la exoneración de responsabilidad penal por estas regularizaciones voluntarias efectuadas antes del inicio de actuaciones de comprobación o, en su caso, antes de la interposición de denuncia o querrela. A tal efecto se introduce la correspondiente modificación en la Ley General Tributaria.

> 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, **euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko dena** (EHAA 12-4-16).


> 14/2012 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, **hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa** (BOE 12-4-21).

> 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, **aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen jasangarritasunari buruzkoa** (BOE 30-4-12).

Los tres objetivos de la Ley son: Garantizar la sostenibilidad financiera de todas las Administraciones Públicas; fortalecer la confianza en la estabilidad de la economía española; y reforzar el compromiso de España con la Unión Europea en materia de estabilidad presupuestaria. Con el cumplimiento de estos tres objetivos se pretende consolidar el marco de la política económica orientada al crecimiento económico y a la creación del empleo.



EL PEQUEÑO SALVAJE



Egilea:
T. C. Boyle

Itzulpena:
Juan Sebastián Cárdenas

Impedimenta, 2012.
128 or.; 16,95€

Oroimenak nola funtzionatzen duen jakitea misterioa da. Zergatik gordetzen dituen gure burmuinak bizipen batzuk eta beste batzuk ez. Haurtzarori lotuta, ziurrenik zirrarak zerikusi handia izango du. Eszena batzuek eragin ziguten inpaktua. Niri haur basati bati buruzko film bat grabatuta geratu zait. Sustraiak, ezkurak eta harrak jaten zituen tximino-haur bat. Gauza gutxi oroitzen ditut. Zuri-beltzean zen. Ilea nahasita eta begi ilunak zituen eta eztarriko soinuak egiten zituen. Eszena bortitzen bat ere gogoan dut. Haurra txakur baten jugularrean hozka egiten. Agian ez zen horrela izango. Filma ez dut berriro ikusi eta ez nintzateke harririk eszena horietako batzuk nire irudimenaren fruituak balira. Denborarekin jakin izan dut telebista txiki batean ikusi nuen film horren izena “*L’Enfant sauvage*” zela eta François Truffauten filmografiako lan giltzarria zela.

Hiru hamarkada geroago haur basatiaren istorioa aurkitu dut berriro. Orain eleberrri itxuran. Gaur egun ez naiz erraz txunditzen naizen haurra, baina esperientzia zirraragarria iruditu zait berriro ere. Eleberrriak gogor astintzen du, gertaera historiko batean oinarrituta dagoelako. “Aveyrongo basatia” esaten diote. Haur basati horri Víctor izena jarri zioten eta biluzik agertu zen Languedoc inguruan 1797ko irailean. Gurasoek bertan behera utzi zuten eta hil egin zela pentsatu zu-

ten. Basoan ezkatututa, urte askotan bizirik irautea lortu zuen, landareak eta intsektuak janda. Ehiztari batzuek harrapatu zutenean animalia zen eta marmar baino ez zuen egiten. Gertaerak Frantzia astindu egin zuen, eta agintariak Jean Itard doktorearen esku utzi zuten mutikoa gizarteratzea. Mediki hori hizkuntzan aditua zen eta Víctorrekin bizi izan zen urte askotan eta hizketan irakatsi nahi izan zion. Era berean, sasoi hartan egoera hutseko giza izaerari buruz zeuden ideia filosofiko eta antropologikoak egiaztatu zituen.

T. C. Boylek (New York, 1948) eleberrri biribila idatzi du. Meritua du, Truffauten filma zazpigarren arteko bitxitzat hartzen baita. Ondo kontatuta dagoen zerbait eleberrri bihurtzea arriskutsua zen. Artista bati “Guernica” margolanaren bertsioa egitea eskatzea bezalakoa da. Jatorrizkoa hondatzeko aukerak asko ziren. Baina ez da horrelakorik gertatu. Idazle amerikarra onik atera da erronkatik. Istorioak konbentzitu eta astindu egiten du. Arrakastaren zati bat istorioari zor zaio, zalantzarik gabe. Baina Boylek istorioa biluztu egin du estilo soila eta entretenigarria erabiliz. Estilo horrek Echenozek idatzitako azken biografiak ekartzen dizkigu gogora. Hain zuzen ere, biografia horien erreseña atal honetan egin dugu. Istorio honek aztoratzaile honek merezi zuen tonua. Gure animalia-aurpegia erakusten duena.

“Lo mejor de la vida es el pasado, el presente y el futuro”.

Pier Paolo Pasolini

UN BUEN CHICO



Egilea:
Javier Gutiérrez

Itzulpena:
Mondadori

Gallo Nero, 2012.
144 or.; 15,90€

Eleberrri honek kritika onak izan ditu, eta norbaitek Estatuko urteko eleberrri nabarmenetakoa dela esan du. Ez du inor axolagabe uzten, hori egia da. Izatez, ez dut gehiegikeriarik esaten Gutiérrezek (Madril, 1974) belaunaldi-eleberrri bat egin duela adierazten badut. Hau da, belaunaldi jakin bateko jendea -70eko hamarkadan jaiotakoak- identifikatuta sentituko da. Izan ere, “*Un buen chico*” lanak hori horrela izateko ukitu jakin batzuk ditu. Aipamenak egiten zaizkie Malasañari, Sol eta Siroco joko-etxei, gau zoroiei eta garai bateko taldeei. Bide batez, musikari egindako aipamena ez da hutsala. *Pixies*, *Nirvana* eta *Jane’s Addiction* taldeek eleberrriaren egituraren eginkizun nabarmena dute.

Baina eleberrriak belaunaldi jakin batekin funtzionatzeak lana ez du ona bihurtzen. Izatez, alderdi batzuek ez gaituzte konbentzitzen. Istorioak adibidez. Malkartsua iruditzen zaigu, eta ez oso sinesgarria. Eta hori oztopoia da, bilbea oso sinesgarriak ez diren gertaera batzuen arabera baldintzatuta baitago. Era berean, zenbait elkarrizketa eta protagonistaren gehiegizko errepikatzea ez dira sinesgarriak. Ados egon gaitetzke Gutiérrezek errepikapena literatura-baliabide moduan erabiltzearekin giro itogarria sortzeko, baina asko abusatzen duenez, azkenean indarra galtzen du.

Hala eta guztiz ere, “*Un buen chico*” eleberrri interesgarria iruditu zaigu. Egilearen asmoa

arranditsua iruditzen zaigu. Hori gustatu egin zaigu. Gutiérrezek iraganari buruz gogoeta egiten du. Gure egintza kaldatzeko ezintasunari buruz. Teknika estilistikoa ere meritua handikoa da. Gutiérrezek eleberrri erraz eta ulergarria idazteko gai da, eta aldi berean, kronologia lineala pikutara botatzen du. Konplexua erraz bihurtzen du. Zikina garden. Iragana orainaldi. Eleberrian denbora-jauzi asko egiten dira, eta ahots narratibo desberdinak daude. Bigarren pertsona eta narratzaile inpertsonala erabiltzen ditu. Ez daki-gu protagonista edo bere kontzientzia entzuten dugun. Esaten edo pentsatzen ari den. Gertatu zen edo gertatzen ari den. Berdin dio. Lana oso azkar irakurtzen da. Guztia bat dator. Gutiérrez irakurtzea mozkortzea edo droga azidoa hartzea bezalakoa da. Argi estroboskopikoz inguratutako gaua kontatzen duenean bezala. Erabateko iluntasuna argi-sorta erritmikoen hautsita. Sorta horiek dantzan ari diren nesken irudiak izozten dituzte.

Apustua egin beharko banu, ziur nago harrera oso ona izango duela hogeita hamar eta berrogei urte bitarteko tartean daudenen artean. Baina uste dut funtzionatu egingo duela, nostalgialki arrakasta izaten du eta. “*Peter Pan*” sindromearen aldeko gustua eta iragana berriz bizitzearen kilkadura. Et ahoi pena da, nire ustez hori ez baita “*Un buen chico*” lanaren gauzarik onena.



LAS MALAS HIERBAS (LES HERBES FOLLES) Alain Resnais

Laurogeita hamar urtetik gora eta zinemagilea. Ez daude asko. Resnais da burura etortzen zaidan bakarra. Izan ere, Oliveira otu bazaizue, ehun urtetik gora eta zinemagilea esan beharko litzateke. Txantxak alde batera utziko ditugu. Frantziar honek meritu handia du. Berrogeiko hamarkadatik, hamarkada guztietan grabatu du, emaitzak beti ez dira berdinak izan, baina marka hori hor dago.

Dakigunez, zinemagilearen goren unea, beste herrikide askorena bezala, *nouvelle vague* agertzean etorri zen. Kritikaria izan zen

Cahiers aldizkarian, eta mundu osoan ospea lortu zuen gaur egun ere kritikarien artean askotariko irizki eragiten dituzten bi pelikulari esker: *El año pasado en Marieband eta Hiroshima, mon amour*. Batzuentzat maisulanak dira; beste batzuentzat, guztiz aspergarriak.

Denborak aurrera egin ahala, film ulergarriagoak egin zituen -batzuk

intrigakoak (bikaina da frankismoaren aurkako erresistentziari buruz egindako filma, Yves Montand protagonista zela); hirurogeita hamar urte zituela musikalak egin zituen (*On connaît la chanson*). *Nouvelle vague* izenekotik atera ziren egileen artean, batzuek egindako filmek eskema klasikoei erantzuten zieten (Truffaut, Becker, Chabrol, Rohmer) eta beste batzuek "intelektualegi" jokatu zuten (Godard buru dela). Agian, Resnais bigarren talde horretan sartuko genuke.

Egile-zinema pertsonala eta berezia egiteko bidean, zalantzarik gabe, zuzendari batzuk pasatu egin ziren. Batzuek, zahartzean, atzera egin zuten. Askoz gehiago gustatzen zaizkit Chabrol eta Rohmer zuzendariak zahartzean egin zituzten lanak.



Hala ere, Resnais ezin da sailkatu: filmografian film arinak, zentzudunak daude, baina guztien oinarrian osagai bat dago: lirismo delikatu. Belaunaldi horretako poetarik onena da (ziurrenik Won-Kar-Waik gustuko izango du, kultura aldetik urrun baina ikusmenaren aldetik nahiko hurbil dagoen bat aipatzearren). Heriotza obsesioa da berarentzat, baina batez ere gizabanakoak bizirik daudela hiltzea (film honetan hori jorratzen da). Zoriarekin eta kasualitateekin jolastea gustatzen zaio (film honetan ere horren adibide ona aurki dezakegu).

Zeluloidean emozioa nabaritzen da, zeharka aritzen da baina ez du aspertzen, izan zitekeena baina izan ez zena kontatzen du. Ikusleak pertsonaien gorabeherak bereak balira legez bizitzen ditu, eta gorri ipintzen da ausardia eta lotsagabekeria ikusten dituenearan.

Las *malas hierbas* lana liburu batean oinarrituta dago (*L'incident*). Liburuan ideia batekin jolasten da: kasualitateak bi pertsonaia lotzen ditu, eta zoriarengatik izan ez balitz (kasu honetan lapurreta bat), inoiz ez lukete elkar ezagutuko (zorria lapurtzen dioten emakumea eta zorria aurkitzen duen gizona).

Laburbilduz, une oso duinak, beste batzuetan emozio eutsia (literaturaren aldetik Bariccorekin zerikusia du), baina zoritxarrez amaieran hondatu egiten duela uste dut. Izan ere, amaiera ez du askotariko interpretazioei irekita uzten, ez, oso zaila da amaiera ulertzea. Film handia izan zitekeena hondatu egiten da azkenean!

Hori dela eta, kolore grisa hautatuko dut. Hau da, ez dut uste maisulana denik, baina azken hamar minutuengatik ere ez dut arbuaituko. Zinema oneko uneekin geratuko naiz, horrelakoak asko ditu eta.

SI NO AMANECIERA (HOLD BACK THE DAWN) Mitchell Leisen (1941)

Zazpigarren artearen erakargarritasun bat hunkitzeko gaitasuna da. Ikuslearen bizitza egunerokotasunetik irten eta hodei batean murgiltzen da, nahiz eta ordu erdi barru guztiak inolako zentzurik ez izan berriro ere. *Si no amaneciera* filmak hori lortzen du. Berdin dio dekoratuak gezur-erretakoak izatea eta istorioa korapilatsua eta sinestezina izatea (Billy Wilder da gidoilaria); izan ere, benetako bizitzan guztiok gure miseriak ditugu. Agian hori da gaur egungo zinemaren arazoa, guztia oso erreala da, dekoratuak, eszenaratzea, eta



istorioa bera, benetako gertaeretan oinarrituta egoten da, eta beraz, horrela ezin da inor hunkitu. Zinema-aretoetara gezurrak ikustera joaten gara, eta hori oso ondo zekiten Depresio Handiko zuzendariak.

Istoriok mamia du: gigolo batek gainbehera izan du Europako gerra dela-eta, eta Estatu Batuetara emigratzea erabakitzen du. Hala ere, Tijuana geldiaraziko dute, etorkin errumaniarrentzat ezarritako kupoa askogatik gaintu da eta (badirudi egoera hori Wilderrek berak bizi izan zuela Tijuana). Hotel batean bere egoera berean dauden Europako beste etorkin batzuekin bat egingo du. Ondo bizitzearen profesional honek dakienean Ipar Amerikako herritar batekin ezkondu epeak asko laburtzen direla, hoberen egiten dakiena egingo du: emakume ederrak liluratuko ditu herraldean azkar sartzeko. Baina goitik behera maiteminduko da, hasierako asmoa komenientziatzeko bikotea aurkitzea zen arren.


Tragikomedia, baina aldi berean, inperioak immigrazioari jarritako oztipoen salaketa. Wilderren jatorri europarra nabarmendu behar da. Leisenek filmeko eszenarik garraiztenak kendu zituen -Estatu Batuetako migrazio-politika lekuri txarrenean uzten zutenak-. Gertaera hori lanbide-harreman emankor bat amaitzeko eragilea izan zen (*Medianoche* zoragarria eren abarmendu behar dugu).

Filmean gizakien zitalkeria guztiak goستن dira: jeloskortasuna, traizioa, baina lekua dago baita ere ahaldurarako, eta maitasunerako, moralkeriarik gabe... Aktoreak, nola ez, oso onak guztiak. Paulette Godard, Olivia de Havilland, eta Charles Boyer eztabaidagarria, zinismo apur bat falta baitzaio eta seriotasun aurpegia apur bat soberan baitu, pertsonaia ez baitzuen horrelakorik eskatzen.

Film hau gomendatzen dugu, beste melodrama handi batzuen ospe aizan e zarren, ziurrenik beste askok baino zahartzaro hobe izan baitu (Douglas Sirk).

Filma gaur-gaurkoa da, immigrazioari, krisiari, saiatauei buruz egiten dituen oharrengatik, baina sarkasmoa eta kontu onak bizikidetzaren zoriotsu eta osasuntsuan daude beti.

Bereziki, elkarrizketa zorrotz horiek dituen komedia dramatiko gehiago iritsi zait beti gaixotasun terminaletan oinarritutako drama baino. Hogeita hamarreko hamarkadaren amaierako eta berrogeiko hamarkadaren hasierako zuzendari guztiak eskapistak ziren, baina oinak lurrean ziztuzten argi eta garbi.



ORIO LLOPIS – La Magnitud del Desastre



Liburua
(66 rpm Edicions)

Musikaren atalean liburu bat aipatuko dugu gaur. Hori ez da ohikoa izaten, jarraitzaileak leialenek dakitenez, baina salbuespenaren arrazoiak justifikatu egiten du. Ziurrenik, “Llopis” gogoratzten dutenak ados egongo dira. Musika-kritikariaren adibide aipagarriarik ez dagoen herrialde honetan, estilo bat sortu eta arrakasta izateko gai dena, Llopis modu nabarmenean nabarmentzen da modu legitimoan kontuan hartzeko izenen zerrenda laburrean.

Beste garai batean bizi izan zen. Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran, laurogeiko hamarkada nahasgarrian. Star, Vibraciones eta Rock Especial argitalpenetan idatzi zituen testuak. Testuok rock and rollak arima lapurtu dion pertsonaren perspektibatik judizio kritiko bat irakurtzeko adibide kanonikoak dira. Prozesu horretan, idazleak lelokeriak alde batera uzten ditu ebasketa horren kode guztiak ulertzeko eta bereak balira legez hartzeko. Orain, Alfred Crespo Ruta 66 aldizkariko zuzendarikideak berreskuratuta, Llopis itzuli egin da bere bizitzako istorio batzuk kontatzeko, *ongi pentsatu* aditzari alergia diotenen ikuspuntutik ere arrazoizko gertaerak baino harago doazen gorabeherak. Bide batez esanda, editorearekin egindako apustu bat galdu ondoren egin du... Hain zuzen ere, apustu horren edukia zen... autobiografia idaztea.

Emaizta testu handia, mendekotasun-sortzailea da –ezin zen bestela izan, Llopisen curriculuma izanda-, eta oso naturala da, berak idatzitako testu guztiak bezala. Era berean, gaur egun rockari buruzko idatziek dituzten modu artifizial eta hutsetatik urrun dago, eta testua irakurrita –berriro ere– etsipenez oroitzen dira fidatzeko moduko pertsonak, besteak beste, idazten zutena ulertzen zelako. Hori gutxienekoa da, ados, baina badirudi gaur egun eskakizuna ezin dela bete.

“Memorias de un rock critic poco fiable” liburuan –azpitoluak hori dio– rocka dago, noski, baina ez hori bakarri. Are gehiago, dosia nahiko txikia da. Batez ere bizitza, heriotza, oroitzapen gogorak, pasarte komikoak eta beldurgarriak daude. Ironia ugari, gizatasuna leku guztietan, arduragabekeria ilustratua eta heroina asko –asko-. Bada garaia Llopis itzuli dela ospatzeko. Sasoi betean dago, eta Golden Earring, Flamin’ Groovies eta Blue Öyster Cult hirutasun santuari dion gurtza irmoak ematen duen argitasunarekin. Eta, berak aitortzen duenez, badirudi Sevillan aurkitu duela, bikote berriaren ondoan, hamarkada askotan bila ibili den leku hori.

DESCONOCIDOS – Nuevo Plan



Cd (Rock Indiana)
14 abesti

Pop elektrikoaren mota bat, power-pop hobeto esanda, Madrilén soilik egiten da ondo. Tematikarengatik eta soinuarengatik, abestien eiteengatik. Zuzenean ekartzen dizkigute gogora lehen uneko Secretos, Mamá eta Nacha Pop taldeak, Pistones taldea edo José María Granadosren konposizio berrienak. Une jakin batean, soinua indartzeko, identifikatzeko moduko iturrietara eta eraginetara jo dezake, oso garaikideak direnak, batzuk Fountains of Wayne, beste batzuk Fastball, adibidez. Baina berdin dio, modu batean zein bestean jantzi azkenean Madrilgo tradizio horretara jotzen baitu. Hiriburuko gauaren distira hori, jendearen kokapen ekonomikoa eta musika-gustu ona talkan ez dauden pubak.


“Nuevo Plan” Desconocidos boskotearen bigarren diskoa da. Pablo Carrero taldekideetako bat da, Rock Indiana etxeko alma matera, eta izen giltzarria power-pop soinuak bizirik irauteko arrazoi batzuk bilatzen ditugunean. Lan honek itxura ona du, eta duela urte

batzuetako debuta askogatik gaintzen du. Abestiak askoz trebeagoak dira, eta zuzenean eta sendo jotzen dute.

Pop-rock ona gaztelaniaz, beteteranoen talde batek egindakoa. Oraintsu talde horrek diskoak grabatzea eta editatzea hautatu du, baina ezin du ibilbidea ezkutatu, ez konposatzeko moduari dagokionez ez letrei dagokienez. Testu horiek itxuraz ez dute inolako tolesturarik, bizitako tematikak dira, norbere burua eta norbere inguruabarrak aurkitzetik asko daukatenak. Hitz-joko asko dituzte, Carlos Carrero konpositore nagusiak oso gustuko ditu eta. Disko interesgarria, bide batez esanda, Rock Indianak azken hilabeteetan argitaratu dituen guztien modukoa: Wolrus –Americana eta Buffalo Springfield bitartean girotutako rockarekin–, Lukah Boo ezizena erabiltzen duen Happy Losers taldeko lider ohia, eta Quant galiziarra; azken bi horiek pop gogorren eremuan koka daitezke.



“NABUCCO”



2011-2012 opera denboraldia amaitzeko, eta “Tutto Verdi” proiektuaren denboraldian programatutako hiru tituluetakoa azkena eskaintzeko (Parmako maisuaren 34 lanetatik 16 antzestu ditugu), OLBEk botere-gose itsuari eta aitaren maitasunari buruzko konposizio honetaz berriz gozatzeko aukera eman digu. Verdi maisuak 1841ean konposatu zuen, eta estreinatzean arrakasta handia lortu zuen. Urtebete geroago, 1842ko martxoaren 9an, Italia osoa txunditu zuen, eta une horretatik aurrera Italiako konpositore nazionala zela ezarri zen. Arrakastaren arrazoiak izan ziren, batetik, lanaren musika-kualitateak eta, bestetik, entzuleek herri juduaren historiaren eta garai hartako grina nazionalisten artean egiten zuten lotura.



Lau ekitaldiko musika-drama da, Temistocle Soleraren libretoarekin. Testamentu Zaharrean eta Auguste Anice-Bourgeois eta Francis Cornuren *Nabuchodonosor* lan dramatikoan oinarrituta dago. Herri juduaren ibilera biblikoak kontatzen dira, Nabucodonosorren asiriari inperioaren aurrez aurre. Libretoan hainbat gai jorratzen dira, hala nola botere-nahia, erregearen handitasuna, fedea Jehovahengana eta hainbat maitasun, batzuk erantzunak eta beste batzuk ez.



Parmako Teatro Regioren ekoizpen egokiak egindako eszenaratzean, oihala lehenengoz jaso zenetik K.a. V. mendeko Jerusalemara eta Babiloniara jo genuen. Dekoratuak ikusgarriak ziren, antzinako Aisiako edozein erresumatakoak. Muntaketa deigarria izan zen, istorioari lotua, eta argiak ere oso egokiak izan ziren.

Musika-atalari dagokionez, pezoian OLBEk debuta egiten zuen Massimo Zanetti italiar zuzendari gaztea. Partituraren inguruan Verdiren ukituko interpretazioa egin zuen, Parmako Teatro Regioko orkestraren zuzendaritzapean. Orkestrak oso ondo ezagutzen du Bussetoko maisuaren lan osoa. Obra osoan eszenarekin oreka osasuntsu eta egokia mantentzen jakin zuen.

Opera koralakenez, Bilboko Operaren Abesbatzak balio handia duela erakutsi zuen, emanaldi bikaina egin zuen eta. Ahots guztien distira eta indarra nabarmendu behar dira, eta maila oso handia erakutsi zuten parte-hartze guztietan. Uneoro menderatzea eta heldutasuna erakutsi zituzten, eta modu horretan, musika-panoramako ikonoa dira. Abesbatzaren parte-hartzea bikaina izan zela esan behar da. Bereziki aipagarriak

izan ziren hauek: “Va Pensiero” III. ekitaldian amaietan (hebrear zapalduak oso ondo irudikatu zituzten, urruneko herria malenkoniak gogoratzen dute eta hara itzultzeko gogo dute, melodia eder eta dotorea erabiliz), eta “Inmeso Jehová” IV. ekitaldian, oso zaila, bai ahots-melodiaren konplexutasunarengatik, bai lehen zatian orkestraren laguntzarik gabe abestu zutelako.

Bakarlariei dagokienez, ez zen orekarik ikusi. Adibidez, OLBEk debuta egin zuen María Guglielmina italiar sopranoak egindako “Abigaille” pertsonaiaren interpretazioa harrigarria izan zen, gainerakoena baino askoz hobea. Gainerakoak “bigarren mailakoa hotzen” lekuan geratu ziren, ez haiek meriturik ezin ez zutelako, italiarrak erakutsitako maila handiaren gatik baino. Dibak soprano dramatiko handia dela erakutsi zuen, tesitura erabat menderatzen duela. Kantu-edertasunaren oinarria ahots zabala zen (mezzosopranoaren esparrutik erregistro dramatiko alturaino), kolore ederrekoa eta bolumen handikoa. Horrekin batera, aktore-dohain handiak erakutsi zituen eszenan burua galduta duen emakumea interpretatu zitelako. Gorrotoaren eta gutxiagotasun-komplexuaren arteko nahastea du, eta horrexegatik boterea lortu nahi du beste ezerean gainetik.

Lehenengoaren itzalean, Roberto Frontali Erromako baritonoak “Nabucco” interpretatu zuen, Leo Nuccik eta horren ordezkoak ezezkola eman ondoren. Ondo irudikatu zuen Babiloniako erregea (maisua baritonoarentzat sortutako lehenengo paper handia). Ahots maila handia eta tinbre ederra dituela erakutsi zuen. Bere rolaren zailtasunak



gainditzen jakin zuen, baina unerren batean ez zen adierazkorra izan.

Carlo Colombara Italiako baxuak zein OLBEEn debuta egin zuten beste biek, Rossana Rinaldi mezzo italiarrak eta Alejandro Roy tenor asturiarrak haien eginkizunak zuzen betetzen jakin zuten, eta interpretazio-dohain handiak dituztela erakutsi zuten. Lehenengoaren "Zaccaria" apaiz judua oso egoki egon zen baxuetan, ebakera handia eta legato zaindua dituela erakutsi izuen; bigarrenaren "Fenena" pertsonaia gozoa eta adierazkortasun handirik gabekoa izan zen. Hirugarrenaren "Ismaele" pertsonaia pasabideetan mugatuta egon zen, baina altu indartsuak erakutsi zituen.



Laburtzeko, denboraldiaren amaieran musika-panoramako soprano dramatikorik onenetakoa izan du. Abesbatza bikaina sopranoari itzal apur bat egiten ahalegindu zen.

"Nabucco"

Aktoreen zerrenda: Roberto Frontali (b); María Guleghina (s); Carlo Colombara (bx); Rossana Rinaldi (mzz); Alejandro Roy (t); Silverio de la O (b-bx); Ana Otxoa (s); Eduardo Ituarte (t); Bilboko Operaren Abesbatza; Parmako Teatro Regioko Orkestra; Eszena-zuzendaritza: Daniele Abbado; Musika-zuzendaritza: Massimo Zanetti; Lekua, Euskalduna Jauregia.



Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: kultura@icasv-bilbao.com

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: kultura@icasv-bilbao.com

Denuncias, Contratos, Divorcios, Hipotecas, Despidos, Accidentes, Reclamaciones, Arrendamientos, Jubilaciones, Herencias...

¿Así te defiendes de los problemas legales?



Consulta con tu abogado/a



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORÍO DE VIZCAYA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**

Asegura SUS sueños

25
años



Ser abogada

20
años



Viaje fin de curso

15
años



Clases de inglés

10
años



Ordenador

5
años



Bicicleta



Haz mutualista a los más jóvenes de la familia.

Abre un plan **JUNIOR** y conseguirás hacer realidad sus sueños

- Rentabiliza al máximo sus ahorros
- Un Plan a medida de los más jóvenes
- Ahorro y protección en un sólo Plan
- Con la solvencia de la Mutualidad

Infórmate en el **902 25 50 50** o entra en www.mutualidadabogacia.com